

SIESTA

Kanpaldietan bada batere gustatzen ez zaidan gauza bat: egunero, bazkaldu ondoren, lo egin beharra. Siesta egitea derrigorrezkoa da, alferrikakoa da aitzakiatan ibiltzea.

Eta hori ez da bidezkoa, ezta? Zeren goizetan, ohetik jaiki ondoren, ez baitugu askorik egiten: gimnasia egin, geure burua garbitu, oheak egin, gosaldu, hondartzara joan, itsasoan bainatu eta hondarretan jolasean ibili, besterik ez. Eta horren ondoren ez dugu zertan nekaturik egon eta lo kuluskarako beharrik izan.

Dena den, siestak badu gauza on bat: taldeko irakaslea etortzen da logelara gu zaintzera eta ipuinak kontatzen dizkigu lasai – lasai egoteko. Eta hori gozamena da!



1- Non zegoen protagonista?

- Eskolan
- Kanpaldian
- Aitona - amonen etxean

2- Erantzun BAI ala EZ:

Gustuko al du siesta protagonistak?

Bazkaldu ondoren lotara joatea da siesta egitea.

3- Osatu, bi hauetako bat idatziz:

borondatezkoa ala derrigorrezkoa

Udalekuan siesta zen.

4- Jarri ordenan haurrek oporretan egiten dutena:

- ☐ Gosaldu eta hondartzara joan.
- ☐ Bainatu eta hondarretan jolastu.
- ☐ Beren burua garbitu eta oheak egin.
- ☐ 1 Ohetik jaiki eta gimnasia egin.

5- Taldeko irakasleak kontatzen zizkien ipuinak:

- Siesta orduko gauzarik okerrera ziren.
- Siesta orduko gauzarik onena ziren.